

EUSKAL KULTURAREN AITORTZA IPAR EUSKAL HERRIAN: TXANPONAREN BI ALDEAK

Eneko Bidegain Aire

Idazlea eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea

LABURPENA

Euskal Herri kontinentaleko kultura bizirik dago. Nahiz eta antzerki amateurrek ez duen 80ko eta 90eko hamarkadetako indarra, oraindik badaude taldeak eta arrakasta lortzen dute. Nekez zabaltzen dira, ordea, Hego Euskal Herrira, eta hango obrak ere gutxi ikusten dira Iparraldean. Musika arloan ere badago sorkuntza, belaunaldi berri bati esker. Idazle gazteak ateratzen dira ia urtero, baina lehen liburua argitaratu ondoan, ez dute aitzina jarraitzen. Bertsolaritza, aldiz, osasuntsu dago. Haatik, euskal kulturak publiko zabalagoa erakarri duen garaian, erdaldunek gero eta nekezago onartzen dute ez ulertzea, eta elebitasun eskaerak handitzen ari dira.

Gako hitzak: Ipar Euskal Herria, herri antzerkia, idazle gazteak, musikari gazteak, bertsolaritza

Jasotze data: 2017ko martxoaren 13an. Onartze data: 2017ko apirilaren 28an

THE RECOGNITION OF BASQUE CULTURE IN THE NORTHERN BASQUE COUNTY: TWO SIDES OF THE COIN

ABSTRACT

The culture of the continental Basque country is alive and well. Even though amateur theatre is not as popular and vibrant as it was during the 1980s and 1990s, some companies still exist and are proving successful. They find it much harder, however, to gain popularity in the Southern Basque Country, and works from that region are rarely seen on the Northern side either. The music field is also an area of great creativity, thanks to the arrival of a new generation of musicians. New young writers appear almost every year, but are quickly forgotten after the publication of their first book. *Bertsolaritza*, or the art of Basque verse singing, on the other hand, is in excellent health. Consequently, in an era in which Basque culture is reaching a wider audience, non Basque speakers are less and less disposed to not understand its different manifestations and the demand for bilingualism is increasing.

Key words: Northern Basque Country, popular theatre, young writers, young musicians, Basque verse singing.

Euskal kultura betidanik izan da aktiboa Euskal Herri kontinentalean. Bide urratzaile ere bai, Herri osoari begira. Azken urteetan maiz tratatzen da kasu berezi bat bezala, aparteko zerbait bezala. Ahantzitako herrialdea bezala, batzuetan gogora ekarri behar dena. Batzuk horretaz ohartzeko dira Euskal Herri penintsularrean – eskerrak! – eta ekitaldi bereziak antolatzen dituzte Lapurdi, Nafarroa Behere edo Zuberoko kultur-gileekin. Bizkitartean, ekitaldi horiek antolatu behar izatea anomalia baten seinale da, gaizki edo gutxi ezagutzen den kultura jardun baten seinale. Zein egoeretan dago, bada, euskal kultura Pirinioen iparraldean? Arloz arlo, sektore aktiboa dela azpimarratu nahi da, ondoko lerroetan.

HERRI ANTZERKI SORTZAILEA

Herri antzerkiaren lekua da Ipar Euskal Herria. Piarres Larzabalek lehenik eta Daniel Landartek gero erein zituzten haziek hamarkadetan eman dituzte fruituak: Guillaume Irigoien, Mattin Irigoien, Antton Luku, Pantzo Irigarai izan dira azken urteetako idazle ezagunenak; eta Xirrixti Mirrixti, Hiruak Bat edota Bordaxuri taldeak urte andana batez ibili ziren herriz herri. Azken urteetan anitz gutxitu da talde amateurren kopurua eta jarduna. Antzerkilari gutxiago dago, antzerki idazleak ere ez dira lehen bezainbat ari. Obra berri gutxi taularatzen da urtean. Dena den, antzerki amateurrek ez du lekua galdu. Txomin Hegi antzerkilariak *Berria* egunkariari azaldu zion teatroa “indartsu” dagoela Euskal Herri kontinentalean. “Ikastetxeen lana” goraiatu zuen, “lan egin baitute antzerkiarekiko zaletasuna zabaltzeko, gogoia izan dadin antzezteko edo publiko gisa joateko”.

Azken urteetan Iduzkilo taldeak hartu du lekukoa, eta talde horrek antzerkilari gazte franko bildu du bere inguruan. Xabier Mendiguren Elizegiren *Monzon ez da Bogart* antzezlanarekin ibili dira herriz herri, 2017an. Hiru urte lehenago, sekulako arrakasta lortu zuten Piarres Larzabalen *Hazparneko anderea* obrarekin, Ander Lipus zutela taula-zuzendari. Emanaldi andana bat izan zuten, eta aldi oro antzokiak mukuru bete zituzten.

Profesionala ez izanagatik, publikoaren esker ona ukaiten du. Publiko euskalduna, kulturazalea, orotariko ideologia duena erakartzen du antzerki mota horrek, xumea, landua eta hurbilekoa delako aldi berean. Herritarren parte hartzea ere bultzatzen du, antzerki taldeko kideetatik hasiz, emanaldiaren antolatzaileetaraino eta publikoraino. Ekintza soziala da antzerki amateurra, balio du dibertitzeko eta gero jendea biltzeko baso edo talo baten inguruan. Lan-orduetatik kanpo orenak eta orenak entsaiatzen iragaiten dituzten aktore horien guztien lanak balio sozial handia duela argi geldituko litzateke, eragin hori neurtuko bagenu: balio du euskal kultura zabaltzeko, euskara sustatzeko, emanaldia antolatzen duten elkarteak laguntzeko, jendea elkartzeko...

Paradoxikoki, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa Garaiko talde profesionalen emanaldiak oso gutxi izaten dira gainerako probintzietan, eta antolatzen direnean

ere ez dute publiko handirik lortzen. Eta Euskal Herri kontinentaleko antzezlan amateurrek emanaldi gutxi egiten dute alde penintsularrean, eta ez dituzte plazak hain aise betetzen.

Eskaintzen den antzerki ereduak badauka lotura arazo honekin, beharbada. Nolako laguntza politika, halako eskaintza. Bi eredu daude antzerki-taldeak sortzeko, desberdinak Hego Euskal Herrian edo Ipar Euskal Herrian. Bidasoaren hegoaldean enpresa egitura bat sortzeko eskatzen du administrazioak, diru-laguntzak lortu nahi badituzte, bederen³⁰. Horrek eragina dauka taldeen jardunean, enpresa bat sortzeak berak zama handia eskatzen duelako, hainbat antzerkilarik azaldu duten gisan. Eta, bistan da, eskaintzen den ereduari ere nabaritzen da hautu hori. Euskal Herri penintsularreko Dejabu eta Artedrama antzerki taldeek proiektu bat sortu zuten Lapurdiko Le Petit Théâtre de Pain taldearekin, *Errautsak*, *Hamlet* eta – berriki – *Francoren bilobari gutuna* obrak taularatzeko. Elkarlan horrek bide eman die arautegi desberdinaz baliatzeko eta Euskal Herri kontinentalean lor zitezkeen diru laguntza txiki batzuk eskuratzeko.

Bide horrek aukera eman die, ororen buru, bide berriak urratzeko, eta eman dituzten obrek oihartzun mediatikoa lortzeaz gain, Euskal Herri osoko antzokiak bete dituzte, muga administratiboan gainetik. Elkarlan nazionaletik sortutako proiektuak arrakasta nazionala duela erakutsi dute.

LIBERTIMENDUAK ETA KABALKADAK

Antzerki profesionalaren eta amateurraren arteko bereizketa ez dute gustuko eragile askok, Mattin Irigoienek adibidez³¹, bereizketa horrek iradoki bailezake kalitatea bataku duela eta ez besteak. Sorkuntza eta tradizioa jarriko lituzke parez pare Irigoienek. Eta sorkuntza badago, tradizioaren berritzea ere bai. Horren adibide izan liteke azken urteetan berpiztu den Libertimendua, inauteri garaian egiten den auzi antzeztu gisako bat. Dantzariak, bertsolariak eta antzerkilariak elkartzen dira ikuskizun bat eskaintzeko urtero. Donibane Garazin hasi ziren duela zenbait urte, Antton Lukuren eskutik, eta Donapaleuk ere bide bera hartu zuen 2009an, Mattin Irigoienek bultzaturik. Hitzordu herrikoia da, besta herrikoia batean antolatzen dena, eta euskara duena ardatz. Hain zuzen, Irigoienek argiki dioen bezala, Ipar Euskal Herriko teatroak (kultura arloko gainerako jardun gehienek bezala) diglosiaren ondorioak larriki pairatzen dituzte, etengabeko eztabaida baita ea antzerkia euskara hutsez egin behar den, ala frantsesa ere sartu behar den, erdaldunak ez daitezen “bartzertuak” senti.

Duela urte batzuk eztabaida biziagoa izan zen, talde batzuek formula elebidunen esperimentua egin zutenean. Aukera hark ez zuen bide luzea egin, eta gaur egun, euskal antzerkia euskaraz egiten da. Uztaritzeko inauterietako emanaldian (San Pantzarren

30 Matxain Kepa. “Loralde kolektiboa” *Argia*, 2015eko ekainaren 28a.

31 Gartzia, Myriam. “Militantzia, ofizioko bezain profesionala”, *Argia*, 2014ko maiatzaren 11

auzian) sartzen dute frantses poxi bat, Frantziako pertsonaiak antzezteko aitzakian. Garbi dagoena da, hori aitzakia dela, publikoan dagoen erdaldun andanari keinu bat egiteko. Uztaritzekoa, dena den, Donibane Lohizune-Ziburuko inauteria bezala, antzerki obra bat da, urtero berritzen dena. Iragan berri den urteko gertakarien inguruan ardahten dute antzeztapena Uztaritzen, inauterietako pertsonaia tradizionalak eta garaian garaikoak uztartuta. Antzerkia idazten dute, prestatzen dute eta ematen dute, urtero berria, urtero emanaldi bakarra, nahiz eta ez duten oihartzunik bilatzen eta lortzen herri-tik kanpo.

Libertimenduaren eta inauterien biziarazteko grina horren arlo berekoak dira, halaber, azken urteetan gero eta gehiago sortzen diren Kabalkadak eta Toberak. Makean eta Saran egin zituzten kabalkadak 2016ko udan. Herri osoa mobilizatzen da: antzerki-az, dantzaz eta ikuskizuneko gainerako osagaiez gain, antolaketa handia eskatzen duen gertakaria da, eta jende andana erakartzen duena. Lehenago Urruñan, Lekornen, Luhuson, Heletan, Irisarrin edota Itsasun ere eman dituzte Kabalkadak eta Toberak.

Berpizkunde horrez gain, ezin ahantz hor jarraitzen dutela, urtero-urtero, Zuberoko pastoralak eta maskaradek. Nahiz eta urte batez maskarada antolatze-ko zailtasunak izan zituzten, urtero-urtero herri batek hartzen du bere gain inauterietako tradizio hori biziaraztea. Pastoral ere hor dago, idazle belaunaldiaren berritze bat eduki ondoan. Eta azken bi urteetan pasterala “manexa” ere loratu da, Baionako hainbat lagunek bi obra eman baitituzte, bi urtez jarraian.

MUSIKARI BELAUNALDI BERRIA

Euskal kantuan eta musikan zaharberritze bat gertatu da azken urteetan, euskal kantagintza garaikidearen hastapenetako kantari batzuek oholtza gainean segitzen badute ere. Pier Pol Berzaitzek, Anje Duhaldek eta Niko Etxartek gaur egun ere ematen dituzte kontzertuak. Peio Ospital eta Pantxo Carrere urte luzez isilik egon ondoan berriz elkartu ziren zenbait urtez. Azken urteetan, ordea, bakoitzak bere bidea hartu du, eta orain bakarlari gisa ari dira. Bakoitzak disko bana argitaratu zuen bere aldetik, 2016an.

Hutsune bat gelditu da 60-70 urteko kantarien eta 20-40 urteko musikarien artean. Bien arteko belaunaldian ez dago mugimendu handirik. Haatik, belaunaldi gaztea fresko etorri da. Willis Drumond taldeak fama lortu du herri osoan. Azken kontzertua eman bazuten ere, geroztik berriz itzuli dira taula gainera. Azpimarratzekoa dena da, bereziki, talde horrek hazia erein duela. Batetik, taldeko kantariak – Jurgi Ekizak – bakarlari bidea hasi du, disko bat grabatuz eta kontzertuak ematen hasiz. Bestetik, ezin aipatu gabe utzi Agustin Alkhat bakarlaria egiten ari den bidea, Willis Drumond taldeko musikari batzuen laguntzarekin. Sortzaileak dira horiek guztiak, eta beren balioa aitortu diete kontzertu antolatzaileek eta diskoetxeek.

Beste estilo batean dabil Kalakan taldea. Kanturako dohaina erakutsia zuten Madonna-rekin munduko itzulia egin baino lehen ere, baina munduko kantari ezagunenetariko batekin kontzertuak egiteko aukerak ikusgarritasun handia eman zien, eta geroztik Euskal Herriko eta munduko plaza anitzetan kantatu dute. Beste talde batzuekin ere kolaboratu dute, bereziki Oreka Tx taldearekin eta Kukai dantza taldearekin sortutako “Herritmo” ikusgarrian. Bi talde horiek beste ikusgarri bat sortu zuten urte batzuk lehenago, aldi hartan, Zuberoko Amaren Alabak taldearekin: “Hostoak” ikuskitzunak sekulako arrakasta lortu zuen, eta Amaren Alabak taldearen soiltasuna eta indarra laket izan zitzairen milaka ikus-entzuleri. Geroztik talde horretako kantariak beste bide batzuk hartu dituzte, nahiz eta oraindik elkartzen diren noiz behinka, taula gainean.

Kantuz ari da oraino Ipar Euskal Herria, ezagun egiten ez diren talde eta bakar-lari anitzen jardunari esker. Urtero antolatzen dituzte kantaldi bereziak, beste kantari batzuen omenez; “Imanol kantatuz”, “Xabier Lete kantatuz” edo “Oskorri kantatuz” bezalakoetan biltzen dira, adibidez, Baigorriko ibarreko kantariak. Kantari mota hori da Ipar Euskal Herriko berezitasunetariko bat: talde anitz sortzen dira, baina ez dira sortzaileak, baizik eta kantu zaharren edo beste kantari batzuen bertsioak egiten dituzte. Badute merezimendurik, kantuaren ondarea bizirik mantentzen eta transmititzen laguntzen baitute. Horrez gain, kantatzeko dohaina sorkuntzarekin uztartzeko ausardia balute, euskal kantuak loraldi berri eta emankorra biziko luke.

FESTIBALEN GARAI ZAILA

Euskal Herri kontinentala ekintzailea izan da eta ekintzailea da gaur egun ere. Eta horri esker antolatzen dira gaur egun ere kantaldiak eta kontzertuak, nahiz eta duela zenbait urte baino anitzez gutxiago izan. Ekintzailetasunaren ikurra da Euskal Herria Zuzenean (EHZ) jaialdia, jadanik hogeitau urte badauzkana. Garai zailak bizi ditu, ordea, herritik sortu eta antolatzen den festibal horrek. Hastapenean diru iturri handia zen Irulegiko Irratiarentzat eta gizarte mugimenduarentzat. Joan den mendeko azken hamarkadaren bukaeran, kontzertuek ez zuten gehiago garai batez bezainbat lagun erakartzen eta, etekinak atera beharrean, galeraren arriskua gero eta handiagoa zen. Berritze baten beharraz ohartu ziren, eta hortik sortu zen EHZ festibalaren ideia.

Garai hartan oraindik gutxi zeuden gisa hartako musika jaialdiak, baina geroztik gero eta gehiago sortu dira ezker-eskuin, mota guztietakoak, eta batzuk lehiakide handiak, munduko talde ezagunenak ekartzen dituztenak urtero, Bilbon eta Miarritzen, adibidez (nahiz eta Miarritzeko Big festibala ez duten antolatu 2017an, aurreko ediziooko diru galera handien ondorioz). Bizirik irauteko nekeziak ditu EHZk, eta diru bilketa kanpaina bat egin dute finantzen egoera salbatzeko eta lanean segitu ahal izateko. Baikorra da herri mugimendua oraino ere dinamikoa dela, eta antolatzeko gaitasuna ez duela galdu. Halarik ere, musika kontsumitzeko ohiturak laster aldatzen dira, zikloak izaten ditu. Kantaldien aroa krisian sartu zenean, rock kontzertuek hartu zuten gaina;

rock kontzertuek arrakasta galdu zutenean, festibalak izan dira funtsezkoak. Une hau gogoetatzeko unea da, ekitaldi mota berrien bila abiatzekoa.

IDAZLE GAZTEAK: NOLA EGIN BIGARREN URRATSA?

Euskal literaturaren zuhaitzak kimu franko eman du azken urteetan, Ipar Euskal Herrian. Azken urteetan idazle gazte franko agertu dira, oroz gainetik, Gazteluma bekari esker. Elkar argitaletxeak eta Euskal Kultur Erakundeak ematen duten beka horrekin argitaratutako lan berrienak Katixa Dolhare eta Egoitz Zelaiarenak dira. Gaztelumaren merezimendua da lortu duela jende gaztea idaztera animatzea. Bi urtetik behin ematen da beka hori, eta edizio guztietara heltzen dira bizpahiru proposamen. Badago, beraz, idazteko gogoia duen jende gaztea Ipar Euskal Herrian ere, eta Gazteluma bultzada bat da jende horrentzat, urratsa egiteko.

Ez da urrats erraza. Nola ausartu idaztera, testua argialetxe bati aurkeztera, jakinez merkatua txikia dela eta eskaintza gero eta zabalagoa? Nola eduki aski autokofiantza liburu bati lotzeko? Gaztelumari esker proposamen bat aurkeztera ausartzen dira, hautatutako proiektuko idazlearekin biltzen dira gero epaimahaiko kideak, bidean laguntzen dute, aholkuak ematen eta, bereziki, konfiantza ematera ahalegintzen dira. Beka bera da konfiantza horren adierazle bat. Liburua argitaratu ondoan, irakurleen erantzuna izaten da autokofinantzaren puzteko edo ahultzeko bidea.

Alde horretatik, Euskal Herri kontinentaleko idazleek, gehienetan, oztopo bat badute: argitaratzen duten bilduman argitaratzen dutelako, "Iparaldeko" etiketa hori daukate, ez dira beste edozein idazleren zaku berean sartzen; are gehiago, idazle gaztearen eta lehen liburuaren etiketak edukitzea lagungarri bezain trabagarri izan daiteke.

Zailena (edo errazena, edo biak) da lehen liburua argitaratzea. Frustragarriena ere izan daiteke. Bigarrenak balio du lehenbizikoaren ahuleziak hobetzeko, eleberrigintzan edo ipuingintzan gehiago trebatzeko. Lehen liburua idatzi duen idazle anitz dago Ipar Euskal Herrian; zorigaitzez, bigarren liburua idatzi dutenak bakar batzuk dira, ordea. Oraino ez da lortu eskualde horretako literaturako kimuak lore eta fruitu bihurtzea.

Lan eta erronka handia da liburu baten idaztea, eta behin liburu bat idatzi izana ezin da bihurtu presio-iturri bigarren liburu bat idazteko edota idazle bihurtzeko, jakinez lanetik kanpo garatu beharreko ekintza bat dela, denbora handia eskatzen duena. Ipar Euskal Herriko literaturaren biziberritzeaz mintzatu ahal izanzen gara erregularri liburuak idatziko dituzten idazle multzo bat sortuko denean. Pisu hori ezin da ezarri behin liburu bat idatzi dutenen gainean; gogoeta sakon bat eskatzen du, aterabideak bilatzeko: laguntzak, zabalkundea, topaguneak, idazleen eta idazlegaien arteko tailerrak...

Badago, hain zuzen, idazle belaunaldi berri baterako gaia. Jadanik liburu bat idatzi dutenen eta beren lehenbiziko liburu idazten ari direnen artean badago dohaina duen jendea, galtzen utzi behar ez dena. Eta dena ez da beken inguruan mugitzen. Aipatu be-

har da beketatik kanpo ibilbidea egin eta oihartzuna lortu duen Bea Salaberri ere, Susa argitaletxean argitaratu duen *Baionak ez daki* liburuari esker. Aipatu behar dira, halaber, erregulariki eleberri berriekin datozen Lander Garro edota Itxaro Borda, eta baita ere Maiatz argitaletxeak egiten duen lana.

BERTSOLARITZA OSAGARRI ONEAN

Literaturak duen arazo bera gertatzen zaio bertsolaritziari ere, hein apalagoan bada ere. Eskolarteko bertsolari txapelketan maila ona erakutsi zuten bertsolari gazte anitzek utzi dute bertsoa unibertsitatean sartu ondoan. Leioan edo Gasteizen ikasteko parada izan dutenek hango bertso eskoletan segitzeko aukera izan dute, eta jarraitu dute bertso-tan. Euskal Herritik kanpora joan diren gehienek, halaber, bide hori baztertu dute, bertsolari onak bihurtzeko osagai guztiak baldin bazituzten ere.

Horri gehitu behar zaio bertsoan aritzeko plazan kopuruak berak ez duela aukera handirik eskaintzen maiz aritzeko bertsoan, publikoaren aitzinean. Eta Xilaba txapelketa heltzen denean, ulergarri da bertsolari anitzek ez parte hartzea, bi urtez ez badute izan paradarik plazan kantatzeko. Alabaina, bertsoarako gaitasuna erdoil daiteke, lanak, ikasketek edo bestelako ardurek eta okupazioek astirik eta aukerarik uzten ez dutenean.

Hala ere, osagarri onean dago bertsolaritza Lapurdin. Nafarroa Beherean eta, bereziki, Zuberoan, ez dago beharbada hainbeste bertsolari, Lapurdirekin konparatuz. Ez da ahantzi behar, ordea, Zuberoan 14.000 biztanle daudela eta Nafarroa Beherean 28.000. Herri txiki-txikiak dira denak: normal da, beraz, bertsoarako harrobia izugarri mugatua izatea. Dena den, publikoa ere aipatu behar da, eta alde horretatik ere osagarri onean dago bertsolaritza. Xilaba txapelketako kanporaketetan aretoak betetzen dira, eta finala kultura ekitaldi garrantzitsua bihurtu da, betiko bertsozaletik anitzez haragoko jendea erakartzen duelako.

Txapelketak duen tira ez da beti islatzen txapelketez aparte bertso-saioetan. Saioak antolatzen dira herriz herri, bertso afari gisa edo zenbait herriko bestetan. Duela zenbait urte baino plaza gehiago badago alde horretatik. Hala ere, badira urteak lau edo sei bertsolari ospetsu biltzen dituzten aretoko bertso saioak murriztu zirela. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalista guztiak bildu zituzten Baionako antzokian 2017 hastapenean, baina ez zuten antzokia betetzea lortu.

Dena den, bertso gintzak harro egoteko arrazoiak baditu. Desagertzeko zorian zegoen 90eko hamarkada hasieran, ez zen hautematen transmisio aukerarik, baina bertso eskolak sortu ziren eta dozenaka bertsolari gazte sortzeaz gain, bertsoan adituak diren gai-jartzaile, epaile edo antolatzaile andana bildu du. Eta, baita ere ehunka zale, zahar eta gazte. Bertsolari gazte horien artean, azpimarratu behar da horietako batek (Amets

Arzallusek) jantzi zuela Euskal Herriko txapela 2013an eta beste bat (Sustrai Colina) edizio guztietan dagoela txapelketa horretako finalean, eta azken Xilaban Euskal Herriko txapeldunari nagusitu zitzaioa.

Kultura jarduera horren nazio izaera ere azpimarratzekoa da. Deszentralizatua da, eskualde bakoitzaren izaera eta autonomia errespetatzen ditu eta, aldi berean, kohesio handiko sektorea da. Zaleek Euskal Herri osoko bertsolariak jarraitzen dituzte; mugitzen dira batetik bestera.

EUSKARAREN BALIOA ZALANTZAN

Bertsolaritzaren lorpenaren seinale da Baiona inguruan batzuk kexatu zirela Xilabako finaleko propaganda guztia euskara hutsez zegoelako eta erdaldunak “baztertuak” zirelako. Bertsolaritza – eta baita euskal kultura ere, oro har – itzalpetik atera dela erakustera eman lezakete horrelako kritikek. Gertatzen dena da euskal kulturarekiko interesa duten erdaldun horien jarrera ez dela duela urte batzuetako erdaldunen modukoa. Lehen, euskarazko kulturak erakartzen zituzten erdaldunek euskara ikasteko beharraren kontzientzia zeukaten. Bazekiten zerbait huts egiten zutela, eta horregatik, naturala zitzaien euskara ikastea. Orain badago publiko bat ohartzen dena badagoela bizia kultura horren inguruan eta horretatik aparte gelditzen dela. Ez zaie bidezkoa iruditzen bazterketa hori, eta begi bistako eskubidetzat daukate euskal kultura produzitzen eta programatzen duten horiek frantsesera itzultzea egiten duten guztia; ez zaie burutik pasatzen berek egin behar luketela indar bat.

Horrek eragin du duela zenbait urte ikusten ez zena gero eta ohikoagoa bihurtzea, hala nola kantaldi baten hasieran aurkezle bat agertzea publikoa agurtzera eta bere hitzaldia frantses hutsez ematea. Baita ere zenbait kantarik kantuen aurkezpenak bi hizkuntzetan egitea. Eta horrek sortzen du arazo larri bat euskarazko kulturarentzat. Euskaraz ezin bada kulturarik egin frantses elebakarrek ulertu ahal izan gabe, euskal kultura bihurtzen da Ipar Euskal Herriari kolore berezia emateko osagaia, funtsean balio sakonik aitortzen ez zaiona edo bere mamiz husten dutena. Paradoxa bat da euskararen eta hizkuntza horretako kulturaren aldeko jarrera (edo gutxienezko errespetuzkoa) zabaldu den garaian, jarrera hori bera bihurtzea euskara debalutzeko arrazoia. Euskal kulturari eta euskarari errespetua erakustea litzateke onartzea kultura horren hizkuntza euskara dela.

Egoera ez da beharbada guztiz bera Gipuzkoan eta Bizkaian, ez eta ere Araban edo Nafarroa Garaian. Baina egia da Euskal Herri penintsularrean badagoela eztabaida bat, azkenaldian, euskarari eman behar zaion edo ez zaion garrantziaren inguruan, erdaldunei begira jarri baitira hainbat lagun eta eragile.

ONDORIOAK

Arloz arlo harturik, erran daiteke euskal kultura osagarri onean dagoela Ipar Euskal Herrian. Belaunaldien arteko transmisioa gertatu da sail guztietan, badaude gisa orotako sortzaileak eta erakunde publikoek ere zerbait egiten dute euskal kultura sustatzeko, Euskal Kultur Erakundearen bidez bereziki. Azken honek ondarea biltzeko egiten duen lana ere aipatzekoa da.

Euskal kultura amateurrek eraikitzen dute, nagusiki. Horrek ematen dizkio kulturari freskotasuna, hurbiltasuna eta dinamika. Bizkitartean, sorkuntza mugatuagoa izateko arriskua sortzen du – kantuan nagusiki – eta, bereziki, sorkuntza hori ez jarraikia eta iraunkorra izatea, literatura arloan nabarmenki ageri den bezala.

Frantses elebakarrek berenganatzearen ondorioz balioa galtzeko arriskutik salbatzeko, batetik, eta sortzailea eta iraunkorra izateko, bestetik, mesedegarri litzaioke “Iparraldeko” etiketa galtzea. Bereizgarri hori, gainera, erabiltzen da diskriminazio positiboa eta negatiboa egiteko. Diskriminazio positiboa bera izan daiteke ahulezia azpimarratzen duen faktore bat gehiago. Har dezagun euskal kultura modu orokorrean, arreta gehiegi jarri gabe “Iparraldekoa” izatean, arreta berezirik jartzen ez den bezala Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako edo Nafarroa Garaiko kulturei dagokienez. Berezitasuna galtzea eta berdintasunez tratatzea aitortza bat litzateke Ipar Euskal Herriko artista guztientzat, Anje Duhalde, Niko Etxart, Itxaro Borda edo Willis Drumond-ek lortu duten bezala.

Eneko Bidegain Aire

Bibliografia

- Dolharé, Katixa (2014): *Biribilgune*, Elkar, Donostia, Baiona.
- Garro, Lander (2014): *Gerra txikia* (bigarren edizioa), Susa, Zarautz.
- Gartzia, Miriam (2014ko maiatzaren 11): “Militantziaz, ofizioka bezain profesionala”, *Argia*.
- Matxain, Kepa (2015eko ekainaren 28a): “Loraldi kolektiboa”, *Argia*.
- Salaberri, Bea (2015): *Baionak ez daki*, Susa, Zarautz.
- Zelaia, Egoitz (2016): *Eta galtzen bagara zer?*, Elkar, Baiona.